

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3676

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 29koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Kulturako sailburuaren 2010eko abenduaren 22ko Aginduko dirulaguntzak esleitzeko ebazpena argitara emateko dena. agindu horren bitartez, publikoa ez den ondare dokumentala osatzen duten ondasunetan egitarauak burutzeko dirulaguntzak banatzeko modua arautu zen.

Dirulaguntza publikoak emateko orduan publizitate-printzipioa bete behar denez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpena, dirulaguntzen onuradunak eta emandako zenbatekoak adierazten dituena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, interesdunei banan-banan jakinarazteaz gain, horrela xedatzen baita, publikoa ez den ondare dokumentala osatzen duten ondasunetan egitarauak burutzeko dirulaguntzak banatzeko modua arautzen duen Kulturako sailburuaren 2010eko abenduaren 22ko Aginduan.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Kulturako sailburuaren 2010eko abenduaren 22ko Aginduaren babesean 2011ko ekitaldian emandako dirulaguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Agindu horren bitartez, publikoa ez den ondare dokumentala osatzen duten ondasunetan egitarauak burutzeko dirulaguntzak banatzeko modua arautu zen.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 29a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ERANSKINA

Eskatzaileak	Euroak
Euskal Herriko Bertsozale Elkartea	15.000
Enrique Julio Guinea de Andrés	9.000
Sociedad de Ciencias Aranzadi/Aranzadi Zientzi Elkartea	10.000
Fundación Manu Robles Arangiz Institutua	9.000
Fundación Amalur Fundazioa	2.800
Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos	9.000
Miren Ainara Ugalde Martinez	9.000
Euskal Mendizale Federazioa	15.000
AHOA. Ahozko Historiaren Artxiboa. Archivo de la Memoria	5.100
Luis María de Zavala Fernandez de Heredia	20.000
Luis María de Zavala Fernandez de Heredia	19.000
Lenbur fundazioa	11.000
Compañía de Jesús S J. - Jesusen Lagundia	10.000
Compañía de Jesús S J. - Jesusen Lagundia	10.000
Antxotarrok. Historia Mintegia	2.100
Jose Unanue Fundazioa	6.000
Dantzan.com, dantza sustatu eta hedatzeko elkartea	3.000
Guztira	165.000